



SARRERA

Hondarribiko Talaia BHI institututik gatozen 2. batxilergoko lau ikasle gara: Unai Jericó, Mikel Elosegui, Naiara Urtizberea eta Elaia Zapiain. Aurten, administrazio eta kudeaketarako oinarrizko ikasgaietan, Startinnovan parte hartu dugu eta hainbat proiektu pentsatu ondoren, bat aukeratu dugu. Hauek gara gu:



Hasteko, gizarteak dituen arazoak ondo aztertu ondoren, taldeko lauak ados egon ginen jende asko goizero arazo berdinekin aurkitzen dela, hoiere artean, gure proiektua egitera bultzatu diguna. Esmatzen garenean, gehienok egiten dugun lehenengo gauza, sukaldara joatea eta gosaria prestatzea da, batzuen kasuan tostada on batzuekin eguna hasiz. Normalean, tostadak gosaltzen ditugunok, gurina ezinbesteko elikagaia da hauei laguntzeko.

Izan ere, gurina hartu eta tostadan zabaltzen dugu labaina zikinduz, produktua desaprobatuz eta gainera, umeentzat arriskutsua izanik. Desabantaila hauetan pentsatuz, gure produktua den ideia bururatu zitzaigun, hau da, gurina tubotxo moduko batean sartzea, kola baten ontzikiaren formatuaren modura. Gure ustez, modu honetara, alde batetik, produktua gehiago aprobetxatuko da, bestetik, askoz erosoagoa eta txukunagoa izango da kontsumitzerako garaian eta azkenik, edozein pertsonak erabili ahal izango du erabiltzeko oso erraza delako, funtsean, kolazko barra baten moduan funtzionatzen duelako. Honakoa esanda, aipatzekoa da Euskal Herrian ekoiztua izango dela, bertako produktu eta enprekin lan eginez.



Dena dela, produktu guztien antzera, guriak ere izen bat dauka. Egia da, proiektuari ekin diogun denbora tartean, hainbat desberdin bururatu izan zaizkigula, baina azkenean, egokiena eta politena iruditu zaiguna aukeratu dugu: MAGALE. Azken finean, gure ustez, horrelako produktu bat arrakastatsua izateko, elikagaia alde batera utzita, hartzen duen izena erakargarria izan behar du, baita ontzikia eta logoa ere.

Honen harira, diseinu askoren ondoren, hau izango da gure produktuaren eta logoaren itxura:

